

Herritar gehienak babesik gabe

Espainiako Gobernuak oso baldintza zehatzak betetzen dituzten kasuetan soilik geraraziko ditu etxetik kaleratzeak, bi urtez. Dekretuak ez du aldatuko EBk gaitzetsitako hipoteken legea.

| URKO APAOLAZA AVILA |

ERRENTA ESKASEKIN irauten duten milaka familia hipotekatu, babesik gabe utziko ditu Rajoyren Gobernuaren lege-dekretuak. Gobernuak “muturreko egoeran” dauden gutxi batzuen kasuak soilik geraraziko ditu, bi urteko moratoria aplikatuz. Ez du azaldu nahi izan zenbat laguni eragingo dien, baina etxetik kanporatuak izateko arriskuan dauden herritarren gehiengoak ez du auke-rarik izango.

Lau kideko familia: amak egun erdiko lana du, aitari paroa bukatu zaio, eta 3 urtetik gorako bi seme-alaba dituzte. Lege-dekretu berriak ez ditu horrelako egoerak aintzat hartzen, eta hipoteka ordaindu ezean, etxetik botako dituzte.

Oso kasu zehatzen kanporatzeak soilik geraraziko dituzte: 19.200 eurotik behera irabazi eta hipotekaren kuota errenta horren erdia baino gehiago denean, eta horrez gain, familiaren inguruko baldintza haue-tako bat betetzen dutenean: familia ugaria edo bi haurren guraso bakarra izatea; 3 urte baino gutxiagoko haur bat egotea; familiako kideren bat ezindua, menpekota edo gaixo larria izatea, edo %33tik gorako ezintasuna



duen pertsona langabeturen baten kargu izatea; kide guztiak langabe-zian eta prestaziorik gabe egotea; genero indarkeriaren biktima izatea.

“Pobreak euren artean lehiatzen jartzea bezala da”

Etxetik kanporatzeen kontrako taldeen esanetan dekretua “adabakia” besterik ez da eta ez du ezertarako balioko. Bartzelonako hipoteken kontrako mugimenduko Ada Colauk Europa Press agentziari honakoa adierazi dio: “Dekretua zentzugabea da, pobreak euren artean lehiatzen jartzea bezala da, ea zein den pobreago”.

Jadanik martxan dauden 400.000 kanporatzeak bere horretan utzi ditu Espainiako Gobernuaren erabakiak, ez baitu atzerako eraginik; ez du aurreikusten etxearekin ordaintzeko modurik, eta Hipoteken Legea ez du ukitu ere egiten. Julianne Kokott Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatu nagusiaren irizpidearen arabera, Espainiako hipoteken legeak ez dio babesik ematen herritarrari, bankuen “neurritz kanpoko klausulen” aurrean.

Egunero Hego Euskal Herrian batez beste 17 familia bota dituzte euren etxeetatik azken hilabeteotan. Azaroaren 9an Amaia Egañak bere buruaz beste egin zuen Barakaldon, etxetik kanporatu behar zuten unean. Gertaerak sumindura sortu du jendartearen eta alderdi politikoak eta bankuak mugiaraztera derrigortu ditu, baina *Expansion* egunkarian irakurri dugun datu hotz bat gailentzen ari zaio gupidagabe justizia sozialari: Espainiako bankuek 489.000 milioi euro dituzte euren balantzeetan etxebizitzaren hipoteken kontura. *Dena nahi, dena galdu* dio esamoldeak. ■



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com